


eman ta zabal zazu



UPV EHU

GATAZKEN ONDORIOAK ERROMATAR GARAIAN

II-I K.a.

BATIRTZE MARTÍN HERNÁNDEZ
HISTORIA GRADUA
2014-2015

ELENA TORREGARAY PAGOLA
IKASKETA KLASIKOEN SAILA

Laburpena:

Lan honen helburua erromatarren gerren ondorioak populazio zibilaren gainean aztertzea izango da. K.a. II. eta I. mendeen artean Europan zehar sakabanaturik zeuden herri aurre-erromatarren gaineko inposaketa eta hauengan ezarritako errepresioa nolakoa izan zen azalduko da. Konkista aurrera eramateko bideak eta hauen ezaugarriak nolakoak izango diren aurkeztuz, betiere denbora luzean zehar garatutako prozesu bat izatearen ondorioz, garaiaren araberrako aldeak egongo direla ulertuz.

Europan zehar kokatutako herri aurre-erromatarren gaineko konkistaren ondorioak azaltzerakoan, konfrontazio momentuan aurrera eramandako neurrien izendapena, hauen azalpena eta zelako eragina izan zuten nukleo hauen gain azaldu egingo da. Horretarako, Erromak konkista bideratzeko eta lurralde hauen gaineko ezarkuntza garatzeko bi jokaera nagusiak aztertuko dira: *deditio* eta *oppugnatio*. Lehenengoa eraso fisikoa eman baino lehen, eta hau ekiditeko helburuarekin, etsaiak Erromarekin adostutako amore ematea zen. Konkista burutzeko eta indigenen gainean inposatzeko neurria bezala ulertua, gizarte hauen gaineko arauak ezarriko ziren. Bigarrena, *oppugnatio*, *deditio* uko egiten zenean aurrera eramandako jarrera zen, eraso zuzena eta gerra fisikoa suposatzen zuena. Aipatutako bi neurri hauen araberrako gerra ondorioak egongo ziren. *Deditio*-ren osteko gerra ondorioak neurri ez suntsitzaileak izango ziren bitartean; bahituen emateak, kalte-ordainak eta ondorio militarrek (guarnizioen ezarkuntza, armagabetzeak etab.), *oppugnatio*-ren ondoriozkoak zigorrek izango ziren; sakeoa, suteak, gunearen suntsiketa...

Amaitzeko, Erromatarrek bideratutako gerrak populazio hauen gainean zer suposatu eta zelako jarrera izan zuten horren aurrean esplikatuko da. Erromaren egituren menpe geratuko dira eta.

Abstract:

The aim of this work is to analyze the effects of the Roman wars on the civilians. Through this research we will explain the way in which the Romans conquered, suppressed and took control over the pre-Roman populations settled in Europe during the second and first centuries BC. By explaining how those formulae were developed considering the fact that it was a long and heterogeneous process.

In order to explain the consequences of those conquests, we will show the steps taken during those wars and how it affected the pre-Roman population. To this end, we will consider the Roman conquest, which was carried out in two different ways: *deditio* and *oppugnatio*. The first one was given out before the physical assault to avoid confrontation, so that Rome's enemies could surrender. Understood as a measure to impose and carry out the conquest of pre-Roman societies, some measures would be applied on them. Secondly there was the *oppugnatio* which was an attitude taken when *deditio* refused. This was supposed to be a direct attack that led to the physical war. Depending on which of these two measures different consequences would take place. While the post *deditio* consequences weren't devastating, the consequences of *oppugnatio* were based on severe punishments (looting, fire, devastating of settlements...).

Finally, it will be explained what these wars involved and the population's attitude towards the measures taken. Indeed the end meant the destruction of the pre-Roman scheme and the integration within the Roman civilization.

AURKIBIDEA

1. Sarrera.....	1
2. Gerra eta ondorioak:.....	3
2. 1. Konkistaren harreman motak:	3
2. 1. 1. Itunak: <i>amicitia/foedus</i>	3
2. 1. 2. Gatazkak: <i>deditio/oppugnatio</i>	3
2. 2. <i>Deditio</i> ren ondorengo neurriak.....	5
2. 2. 1. Bahiketak.....	5
2. 2. 2. Ondorio ekonomikoak: kalte ordainak.....	6
2. 2. 3. Lurralde mugaketak.....	7
2. 2. 4. Ondorio militarrik:	7
2. 2. 4. 1. Kolaborazio militarra.....	7
2. 2. 4. 2. Armagabetzeak	7
2. 2. 4. 3. Guarnizioak – praesidia	8
2. 3. <i>Oppugnatio</i> ondorengo errepresaliak.....	9
2. 3. 1. Sakeoa eta botina <i>-praeda-</i>	9
2. 3. 2. Hilketak eta sarraskiak	11
2. 3. 3. Hirien suntsiketak.....	13
2. 3. 4. Emakumeen gaineko biolentzia	14
2. 3. 5. <i>Supplicationes</i>	15
2. 3. 6. Buruaz beste egiteak.....	15
2. 3. 7. Esklabotzeak.....	16
2. 3. 8. Zigorak: eskuen anputazioak.....	17
2. 3. 9. Lekualdaketak eta deportazioak.....	17
3. Hausnarketa.....	19
4. Eranskinak.....	22
4. 1. Irudiak	22
4. 2. Iturri literarioak	25
4. 3. Bibliografia	26

1. Sarrera

Lanaren helburua K.a. II. eta I. mendeen artean, Erromaren inperialismoaren santsuak azaltzen hasten diren lehenengo momentuetan Europan zehar sakabanaturik zeuden herri indigenen gaineko konkistaren ondorioak zeintzuk izan ziren aztertzea da. Egoera berriari aurre egiteko gaitasuna zein izango zen ulertuz, itun desberdinen akordioak bideratzeko nahia eta garatutako erresistentzia aztertuko da. Gizarte hauen sufrimendua konkistaren aurrean ulertzeko nahiaren ondoriozko lana dela esan dezakegu, eta, beraz, gizarte historia landuko da. Gizarte horien sufrimendua ulertzeko zailtasunen aurrean, gerraren ekintzen ondorioak zein ezarritako neurri zapaltzaileak ikertu eta ulertuko dira.

Erromaren gerraren ondorioak aztertzeko, eremu geografiko zein kronologiko baten aukeraketa bideratzea beharrezkoa ikusi da. Mediterraneoaren bi aldeetan, Hispania eta Galia zein Greziako eremuan finkatu egin gara, Hispanian zein Galiaren kasuak sakonago aztertuz, iturri historikoek hauen konkistari buruzko informazio gehiago ematen dizkigute eta. Kronologiari dagokionez, K.a. II. mendea eta K.a. I. mendeen arteko urteetan kokatuko gara: II. Gerra Punikoaren amaieratik, Zesarren garaia arte, beraz, *res publica* erromatarren hedapena zein inperialismoaren garapenaren lehenengo pausuak emango diren garaian. Herri indigenek epe honetan erromatarrekin lehenengo harreman eta kontaktuak izango dituzte, konkistaren kronologia bera izanik. Aldi berean erromatarrek konkistak bideratzeko metodologia garatuko dute, gizarte hauen gainean ezarritako ondorioak antzekotasunak izanez.

Gaiaren aukeraketa Antzinateko historiaren miresmenari lotuta egon da, batez ere Erroma garaiko zein Erroma aurreko gizarteen jakingurari lotuta. Izan ere, erromatar garaian oraindik ere Erromaren eremutik kanpo zeuden zenbait errealitate bizirik zeuden Europan bertan. Hauek erromatarrekin harremanak mantenduko zituzten, baina behintzat Historiako Graduan zehar gutxi jorratutako atala izan da, orokorrean K.a. historia Mesopotamia, Grezia eta Erromako historiara mugatuz. Gizarte aurre-erromatar hauen gaineko ezagupena urria izan da, nire kasuan hauenganako interesa handituz.

Lan hau aurrera eramateko bibliografia zein iturri historiak landu egin dira. Erromatarren gerren ondorioei buruzko bibliografia gaztelaniaz zein ingelesez aurkitzeko zailtasunak egon direla aipatu behar da. Nahiz eta gai landua izan,

argitaratutako lan gehienak frantsesez idatzita daude, oztopoa suposatuz. Egia da Hispaniaren konkistari buruzko iturri historiko zein arkeologiaren garapena eman denez, historiagile batzuk ere gaztelaniaz Erromaren konkisten metodologiari buruzko lanak argitaratu dituztela. Dena den, hauek Hispania eremuaren ikerketa bideratu dute, gutxi batzuk Grezia zein Galietako gerretako populaketaren gaineko ondorioak jorratuz. Hortaz, osotasunean, gutxitan landu egin den gaia dela esan dezakegu. Hori dela eta, lanaren bibliografia osatzeko zailtasunak egon dira, hainbat artikulu zein liburuen ataletatik informazioa bilduz testu koherente eta ondo egituratuta lortu ahal izateko.

Lana osatzeko zenbait historialarien ikerketak erabili dira. Hauetatik nagusienak Antela Bernardez, García Riaza, Martínez Morcillo eta Ñaco del Hoyo izan dira, erromatarren gerren eta hauen ondorioei buruzko informazio gehien eskaintzen dituzten ikerlariak izanik. Hauek, nahiz eta Europar lurraldeei buruzko makina lan argitaratu izan, Hispaniako kasua batez ere landu dute. Iturri historikoei dagokionez, Julio Zesar (K.a. 100 – K.a. 44), Tito Livio (K.a. 59 – K.o. 17), eta Apianoren (K.o. 95 – k.o. 165) lanak aztertu dira. Hauek Errepublika garaian zehar garatutako ekintza militarrik azaltzen dituzten idazleak izanik, beraien lanetara jotzea beharrezkoa ikusi da. Hauen bidez garaiko idatziak kontrastatu eta lehen mailako iturrietara jotzeko aukera izaten, betiere heldu zaizkigun idatziak Erdi Aroko kopiak direla ulertuz, mendeetan zehar filtro ugarien bidez iraziak izanik. Hauetan idazleen garaiko subjektibotasun kutsua ere adierazgarria dela azaldu behar da, propaganda politikoa ere nabaria izaten. Hortaz, kontu handiz aztertu behar diren iturriak dira.

Bestetik, arkeologiaren erabilpenaren zailtasuna dela eta, alde batera utzi egin dela ere azaldu behar da. Egia da zenbait kasutan arkeologiaren bidez herrialde zein nukleo indigenen suntsiketak eta gerraren aztarna arkeologikoak ikertu direla: Ángel Morillo Cerdán-en eskutik, kanpamendu militarrei buruzko ikerketek gerra eta konkistaren informazio baliogarri franko kaleratu du (Eranskina 4. 1. 1. Irudia). Halere, gizarte historia eraikitzerako orduan iturri idatzietara batez ere jo behar da, hauetan pentsamenduak zein aurrera eramandako formulak eta neurriak azaltzen baitira, arkeologiak eskaintzen ez digun informazioa izanik. Hala ere, arkeologia historia eraikitzeke beharrezkoa den zientzia da, objektibotasun gehiago zein errealitate desberdinei buruzko informazioa ere eskaintzen dizkigu eta.

Honenbestez, hurrengo orrialdeetan Erromako Errepublikak aurrera eramandako gerren ondorioak aztertuko dira. Etsaien gaineko neurriak banan-banan aztertuz, hauen zergatiak zein helburuak azaltzeko eta ulertzeko helburuarekin.

2. Gerra eta ondorioak:

2. 1. Konkistaren harreman motak:

2. 1. 1. Itunak: *amicitia/foedus*

Erromatarrek burututako Europako Mendebaldeko konkista nahiko egoera hegemonikoan eman zen, hauen nagusitasuna nabarmena izanik. Hispaniako kasuan konkista Bigarren Gerra Punikoaren testuinguruan eman zen, aurreko egiturak oraindik ere kontserbatzeko estrategia aurrera eramaten (García Riaza, 2002, 131). Herri aurre-erromatarren boterea Erromarekin alderatuz nahiko ahula zen, hori dela eta, normalean *foedus* hitzarmenak ez ziren eman.

Biolentziaren erabilpen mugatua garatzeko nahia orokortu zen, gune autonomoak *amicitia* itunaren bitartez Erromaren menpe geratuz. Honen bidez, Erromak hauen gaineko nagusitasuna eskuratu eta baita hauen interesen aurka ez jotzeko zein ardurapen militarra izateko klausulak ere bete behar izango zituen. Hortaz, Erromaren hedakuntza ez zen beti gerra edo armen bidez egin, diplomazia erabilpena ohikoa izan zen, onura ekonomikoak eskuratzeko nahia egonez. Erreinu helenistikoekin eman bezala, Mendebaldean ere diplomazia tratatuak erabiliko dira: *amicitia*, lurralde berriak bereganatuz indarraren erabilpenik gabe. Kontran, aipatu beharrekoa da K.a. II. mendetik aurrera *foedus* edo hitzarmen ofizialik ez zirela ohikoak izan, hauen erabilpena geroago orokortuko zelarrik.

2. 1. 2. Gatazkak: *deditio/oppugnatio*

Lanaren azalpenari ekiteko etsaien arteko desberdintasunak emango direla azaldu behar da, batzuk gerra eta ondorengoko errepresaliak saihestu nahian *deditio*-en bidez amore eman eta beste batzuk, berriz, erresistentzia garatuko dutelako. Honakoak bakea ezartzerakoan ezberdintasunak markatuko ditu, lehenengoengan gerra ondorioak askoz ere leunagoak izango dira eta.

Armen bidezko garaipena ematekotan –*oppugnatio*–, ondorioak askoz ere larriagoak izango ziren, halere, egoeraren araberrako desberdintasunak egon ziren. Hiri batzuk hasieratik Erromaren menpe jarri ziren, beste batzuk aldiz, beldurraren ondorioz geroago errendizioa burutuz.

Erromatarren menderatzeko tresna nagusia *deditio*–a izan zen, amore ematea esan nahi zuena. Honen bidez, erromatarrek irabaziak lortzen zituzten, Erromaren garaipena eta goraipamena ere adieraziz, etsaien menderakuntza adierazten zuen terminoa zen eta (Bravo, 2007, 20). *Ius belli* gerraren kontzeptu arkaiko batean oinarritzen zen, ekintza sozio-erlijioso modukoa zen hau eta ez hainbeste politiko edo ekonomikoa. *Bellum iustum* beraz, defentsa moduan ulertu behar den terminoa da, etsaiek eragindako mina konpontzeko nahian Erromak gerra bideratuko duelako, betiere babesaren bermatzeko bidea izanik (Bravo, 2007, 20). Honekin lotuta *fides* kontzeptua dago, hitzemandakoa egiaztatzearen garrantzia adierazten zuena baina baita garaituaren gaineko barkabera ere izatea, etsaiaren gaineko konpromisoa mantentzearen garrantzia handia izaten.

Arduraren araberrako errepresaliak ezartzen zituzten erromatarrek, horrenbestez, *deditio*-a ematekotan ondorioak askoz ere leunagoak izango ziren, indarraren bidezko garaipena –*oppugnatio*– jazotzekotan baino. Erromaren hedapenarekin batera konkistatutako lurraldeetan jeneralek zigor antzekoak ezarri zituzten garaitutako tokien gainean, hauen kapitulazioaren araberrakoak izanik. Hori dela eta, hauek aztertuz gune indigenen gaineko inposamenak aztertzeko gai izango gara, garaiko pertsonak gerraren ondorioz pairatu izan behar zuten egoerak ulertzen saiatuz.

Deditio-a agitekotan, gerraren kalte ordainak ordaindu beharraren menpean, zigor ekonomikoak, laguntza militarra zein bahituen entregua gauzatu behar zen. *Oppugnatio*-rekin ez bezala, biolentziaren erabilpena murrizten zen hilketak, esklabotzeak, sakeoak edo hiriaren suntsiketa saihestuz. Gainera, ondoko hiriekin bideratutako harreman politiko diplomatikoak debekatuko dira, koalizioak saihesteko helburuarekin. Honekin batera, armak entregatu beharra ere egongo zen, askotan *deditio* garatzeko oztopoa izanik, indigenak babesik gabe ikusiko ziren eta. Horretarako, Erromak babesaren bermatzeko konpromisoa adieraziko du, baina arazoak sortuko zituen neurria izan zen (Marco Simón, 2012, 165), Zesarrek Galietako Gerran liburuan *Aduaticos*-ekin gertatutakoa adibide esanguratsua izanik:

“(…) *Unum petere ac deprecari: si forte pro sua clementia ac mansuetudine, quam ipsi ab aliis audirent, statuisset Atuatucos esse conservandos, ne se armis despoliaret. Sibi omnes fere finitimos esse inimicos ac suae virtuti invidere; a quibus se defendere traditis armis non possent. (…)*”¹

Erasoen bidezko menderakuntza ematean –*oppugnatio*– jeneralaren ardurapean egiten zen, errepresioa ezartzeko askatasun osoa izanik. Honen helburua izua zabaltzea zen, etsaia adoregabetzeko eta erresistentzia amaitzeko. *Deditio*-arekin konparatuz, *oppugnatio* kasuak askoz ere bortitzagoak ziren, indarraren erabilera etsaia suntsitzeko gauzatzen zelako. Beraz, borroka nahia adierazten zenez garaipena ematean ezarritako neurriak zapaltzaileak izango ziren, errepresaliak burutuz (García Rianza, 2011, 42).

Esan bezala, jeneralaren boterea handia zen garaitutako herrienganako erabaki ahalmen osoa zeukalako. Populazio indigenaren gaineko zigorrak eta errendizioaren baldintzak zehazten zituen, *deditici* estatus berria ematen.

2. 2. *Deditio*ren ondorengo neurriak

Gerraren kalte ordainak dira hauek. Egia da, berez, eraso fisikoa eman baino lehenagoko ituna dela, horrenbestez, gerraren ondoriozko kalte ordain hauen existentzia ulertzeko oztopoak egon ahal dira. Hala ere, erromatarren ikusmoldearen arabera lurralde hauetako populazioak Erromaren menpean egon behar ziren, hauen askatasuna Erromaren nahiekin topo egitean hauen kontra jotzen zuelako, *bellum iustum* izanik. Hortaz, azken finean Erromaren bermerako burututako gerrak izango ziren, hauetan itun hauen garapena funtsezkoa izanik konkistak burutzeko. Estrategia hauen bidez lurralde zabalen konkistak burutu ahal zituzten soldaduen galera eta kostu ekonomikorik gabe. Gainera metodo hauek irabaziak eta konkistaren hedapena burutzeko tresnak bilakatu ziren.

2. 2. 1. Bahiketak

García Riazak bere lanetan azaltzen duen moduan, bahitu hitzak ez zeukan gaur egungo esanahi bera. Antzinatean bahituen egoera bortxaezina zen, enbaxadoreen

¹ Caes. *BG* II. 31. 4: (...) una sola cosa le pedían y suplicaban, no los despojase de las armas; que casi todos los comarcanos eran sus enemigos y envidiosos de su poder, de quienes mal podían defenderse sin ellas. En tal caso les sería mejor sufrir de los romanos cualquier aventura, que morir atormentados a manos de aquellos a quienes solían dar la ley.

bortxaezintasun bera zuten, diplomaziarako lanabes edo tresnatzat hartzen baitzituzten. Dena den, hauengan gehiegikeriak ere emango ziren noizbehinka.

Presoen (αἰχμάλωτοι/*captivi*) eta bahituen (ὄμηροι/*obsides*) arteko desberdintasunak zeuden, bahituak ezarritako akordioak eta neurriak aurrera eramateko bermea moduan erabiltzen ziren, hauen egoera babesteko neurriak egoten. Gerra atxilotuek, kontrari, estatusaren araberrako jokabidea izango zuten, kopuru ekonomiko baten truke askatuak edo esklabo moduan salduak izan ahal ziren (Alvarez Pérez-Sostoa, 2009, 153-155). Erromatarrentzat bahituen gaineko gehiegikeriak barbarotasuna adierazten zuten (García Rianza, 2011, 45), beraz, nahiz eta tentsio egoeran mantendu, bestelako presoekin konparatuz abantailak zituzten.

Bestetik, aipatu beharrekoa da bahitua sinbolotzat hartzen zela, bi aldeen arteko akordio baten adierazlea zen eta. Erromaren kasuan arerioaren menpekotasuna eta garailearen boterea adierazten zuen harremana izan zen. Hain sinbolo indartsua zen non, García Riazaren aburuz, bahituen emateak amore ematea esan nahi baitzuen².

Bahituen egoeraren azalpenarekin amaitzeko, ikerlariak hauen kopurua eta herri aurre-erromatarren populaketa mailaren arteko harremanik ez dagoela jakin dute. García Riazak erantzukizunaren araberrako kantitatea izango zela pentsatzen du, konkista ondorengoko altxamenduak ematekotan erromatarrek bahituen zenbakiaren igoera bideratzen zuten eta³. Bestaldetik, behin bahituen atxiki epea amaitutakoan eta hauen jatorrizko hiriek adostutako neurriak betetakoan askatuak izango ziren (Alvarez Pérez-Sostoa, 2009, 169).

2. 2. 2. Ondorio ekonomikoak: kalte ordainak

Bahituekin batera, eskaera ekonomikoak ere ohikoak ziren. *Deditio*-aren ondoriozko neurri orokorra zen hau, garaitutako hiri guztiei kalte-ordain ekonomikoak eskatuz, batez ere Hispaniaren konkistan iturriek hauen adibide asko azaltzen dizkigute.

Honen bidez garaileei gerra kostuak ordaintzen zitzaizkien, Erromaren etsaiari gatazkaren ardura leporatuz. Honakoa armadaren autofinantzaketa behararekin lotzen zen, konkistaren une desberdinetan fiskalitate gabezia adieraziz. García Riazaren lanetan irakurri ahal denaren araberrera, iturriek finantziario moduak azaltzen dituzte era

² García Rianza, 2011, 45.

³ *Ibidem* 46.

ez zuzen batean. Dena den, kronologia hain goiztiar eta gerra testuinguru honetan gerra kalte ordainekin lotu beharra adierazten du adituak, *stipendium* eta soldaduen soldataren arteko harremana egoten (*stipendium* geroago soldaduen soldata adierazteko terminoa izanik).

2. 2. 3. Lurralde mugaketak

Deditio-a baiesten zuten taldeek neurri politikoak onartzera ere behartuak ikusiko ziren. Askatasun mugatu bat izango zuten, Erromaren nahien arabera. Honen bidez ezarlekuaren lurraldearen mugaketa bideratzen zen, mugimenduak behatzeko intentzioarekin, lurraldearen kontrola gobernadore probintzialak aurrera eramaten zuten (García Riaza, 2012, 165).

Honen bidez beste hiriekin bideratu ahal ziren kontaktu politiko-diplomatikoak saihestea eta debekatzea bilatzen zen, laguntza militarra eta Erromaren aurkako jarrera aurrera eramateko posibilitateak murriztuz. Koalizio iraultzaileak ekiditeko neurri moduan ulertua, aldi berean gunearen kontrol osoa bideratzeko xedea zegoen.

2. 2. 4. Ondorio militarrek:

2. 2. 4. 1. Kolaborazio militarra

Deditio-arekin batera ondorio militarrek ere bazeuden, laguntza militarra eskaintzeko beharra izanik. Tropen eskaera burutzen zuten Erromak, honen bidez konkistak zabaltzeko beharrezko soldaduak lortzeko ahalmena izango zuten, estrategia militarra izanik. Hori dela eta, *res publica*-k tropen exigentzia burutuko du, laguntza militarren beharra adieraziz.

2. 2. 4. 2. Armagabetzeak

Bestetik, *deditio*-a burutzeko funtsezko neurria armagabetzea zen, arazoak eta mesfidantzak sortuko zituen baldintza izango zena. Armak etsaiari emateak izaera sinbolikoa izaten zuten, baina, aldi berean, babesaren galera ere suposatzen zuten. Sinbologia hau errendizioaren adierazpenarekin lotzen da, garailearen eskuetan jausiko baitira arma guztiak, garaipenaren adierazlea izanik.

“Ad haec Caesar respondit: se magis consuetudine sua quam merito eorum civitatem conservaturum, si prius quam murum aries attigisset se dedidissent; sed

*deditionis nullam esse condicionem nisi armis traditis. Se id quod in Nervii fecisset facturum finitimisque imperaturum ne quam dediticiis populi Romani iniuriam inferrent.*⁴

Etsaiari kendutako armak –*spolia*- garaipenaren sinbolo garrantzitsuak ziren. Balio metaforiko handia zuten eta, esan bezala, porrotaren adierazlea zen (García Rianza, 2011, 51). Etsaiak armak kontserbatu nahi izango zituen, Hispaniaren kasuan adituek hauen lotura erlijioso armekiko egongo zela adierazi zuten, halere honakoa alde batera utzi egin da azken urteetan. Balio sinboliko handia izango zutela begi bistakoa da, hiritartasunari lotuta zeuden objektuak zirelako, estatusaren sinboloa izanez (hauen galera komunitatean zeukaten lekuaren galera ere suposatu ahal zuelako). García Riazaren esanetan lotura erlijioso bat ez ezik, iturriek adierazten dute nola armak entregatzeko mesfidantza babesgabetasunarekin ere lotzen dela (bestelako indigenen gain zein Erromaren gain) beraz, armak ematerakoan sortutako arazoak nahiko logikoak izango dira. Horretarako, erromatarrek *deditio*-aren bidez babesa bermatuko dute, *fides*-aren bitartez bermea ezarriz garaituen gaineko errespetua funtsezkoa izaten erromatarrentzat (*deditio* estrategia zein diplomazia garatzeko tresna zenez, honen mantenua beharrezkoa zen, gerora menpeko herri hauen babesa bermatzeko aitzakiarekin beste hirien gaineko erasoak bideratzeko justifikapena izanik). Dena den, jarrera hau askotan ez da nahikoa izango, erresistentzia aurrea eramaten (García Rianza, 2011, 53).

2. 2. 4. 3. Guarnizioak – *praesidia*

Konkistaren lehenengo momentuan aurreko egitura militar aurre-erromatarren iraupena bideratuko zen, ahalmen falta dela eta. Elite indigenekin harremanak burutuko ziren egitura hauek aprobetxatuz eta hauetatik soberakin ekonomikoak eskuratuz (García Rianza, 2011, 54).

Praesidia-ren ezarpena *deditio* kasuetan errendizio terminoak burutzeko eta konkista ondo ezartzeko nahiarekin ulertu behar da (García Rianza, 2011, 59), armen eta

⁴ Caes. *BG* II. 32. 1-2: “Acerca de este asunto César les respondió -que iba a preservar su pueblo más con arreglo a su propia costumbre que porque lo merecieran, siempre y cuando se rindieran antes de que el ariete tocara la muralla; pero que para la rendición no había otra condición que la entrega de las armas; que haría lo mismo que con los nervios, ordenando a los vecinos que no infligieran daño alguno a quienes se habían sometido al Pueblo Romano-”

kalte ordainen entregua burutzeko berme neurria izango zena. Hiriaren barnean soldadu talde bat ezartzeko neurri izan zen hau, bake terminoak behin ezarrita eta berretsiak egotean soldadu hauek hiritik irteten zirelarik. Edonola ere, erromatar unitate militarrek ezarriko ziren konkistatutako lurraldeetan, neguko kanpamenduak osatuz (García Rianza, 2011, 60).

Beste neurri bat *praesidia* finkoak ezartzea zen, hauen bidez altxamenduak saihestu nahi izango ziren. Honek ezarritako komunitatearen gaineko zama garrantzitsua zen, soldadu hauen mantenua burutu behar zuten eta. Hortaz, neurri hauek ezarritako komunitateetan eragindako egoera ulertu ahal dugu, nola hauen bidez Erromaren menpekotasuna adierazten zen, askatasuna galduz.

2. 3. *Oppugnatio* ondorengo errepresaliak

2. 3. 1. Sakeoa eta botina *-praeda-*

Erresistentzia burutzeko erabakia hartu ondoren, armen bidezko eraso ematen zen. Erromatar armadak hiri hauen kontrako neurriak hartzen zituztelarik gerra bidea ematen zen, helburua etsaiaren suntsiketa izanik. Behin garaipena lortuta, bizirik zeudenen kanporaketa eman eta arpilatzea burutzen zen, eraso amaitu bezain pronto abian jartzen.

M. Coudry eta M. Humm-en lanetan oinarrituz, García Riazak sakeoa antolatua izan ohi zela adierazten du (García Rianza, 2011, 56), Ziolkowski-k, berriz, bestelako interpretazioa garatzen duen bitartean. Azken honen arabera bi arpilatze mota egongo ziren: bata ondo arautua eta antolatua eta bestea, nahiko nahaspilatsua eta askea (García Rianza, 2007, 24). Arpilatze arautua ohikoena izango zela dio García Riazak, honen bidez lortutako irabaziak *-praeda-* soldaduen artean banatuko zirelarik.

Azaldu bezala, *imperator*-aren kontrol maila bere soldaduen gain nahiko eztabaidatua izan da adituen artean. Nahiz eta iturriak nahiko nahasiak diren, arpilatze erregulatua eta basatia edo askea egongo zen, azken hau ikuskatzailerik gabeko sakeoa izango zena. Ziolkowski-ren arabera metodo nagusia arpilatze askea izango zen. Edozein modutan ere, García Riazak azaltzen duena oinarri izanez, Polibioren testuetan erromatarrek sakeoa burutzerakoan neurri zehatzak zituzten, tropen zati bat bakarrik bideratuta ahal izaten eta gainontzekoak hauek babestuz. Livioaren arabera ez zen hain

erregulatua egongo, jeneralak arpilatzea burutzeko ordena eman eta bestelako neurririk ezartzen ez zuelako (García Riaza, 2002, 249). Aipatu bezala bi arpilatze mota hauek garatu, baina nagusiena sakeo antolatua izango zen. Betiere egoeraren araberrako jarrera izango zen hau, arpilatze askea askoz ere suntsitzaileagoa izaten, etsaien kontrako neurri zapaltzaileen artean kokatu ahal izaten dena (García Riaza, 2002, 253).

Morcilloren aburuz, arpilatzearen agindua *imperium*-a zeukan magistratuak ematen zuen, honen inguruko erabaki eta erantzukizun osoa izanik (Martínez Morcillo, 2013, 112). Morcillok eta García Riazak sakeoa erregulatua izan ohi zela adierazten dute, botina banatzerako orduan erraztasunak eskainiko zituena, diziplina ere bermatzeko neurria izanik. Ziolkowskik, ostera, sakeo librearen presentzia ere ikusi egin du, erromatar armadak diru eta aberastasun gosea zela eta harrapaketa librea bideratuz. Hala ere, harrapakeria askea ematekotan honakoa magistratuaren ondoriozko agindu bat izango zen, gizarte horren gaineko zigorra handiagoa izateko helburuarekin, izua zabaltzeko nahia egonez (Martínez Morcillo, 2013, 115).

Botinaren barnean ondasun kolektiboak, menderatutako populazioa (esklabo moduan saltzeko aukera egonez) eta etsaiaren lurraldea (*ager publicus* izango zena) zeuden (García Riaza, 2002, 246). *Imperator*-ak *praeda* edo botina banatzeko ahalmena zeukan, soldaduen artean espezie edo txanponetan banaketa eginez –*stipendium*-, batailan adierazitako merituen arabera, gainontzekoa Erromako *aerarium*-en sartuz (*oppugnatio*-ren bidez garaitutako hirien botina soilik) (García Riaza, 2001, 56). Botina osatzen zuten objektu eta aberastasunak mota askotakoak ziren: metalak, txanponak, presoen salmenten etekinak etab., emakumeak ere hauen zati izanik. Jeneralak garaituen armen gaineko ahalmena –*spolia*- ere zeukan, eta hauen salmenten etekina jeneralaren *manubiae* izatera ere igarotzen zen, *imperator*-aren botin propioa zena.

Bestetik, arpilatzearen helburu nagusia etsaien erantzukizuna gerra eta erasoaren aurrean zigortzea izango zen, zehapen moduan ezarritako neurri bezala ulertua, erasoak ekiditeko nahia aurkeztu ez izatearen ondorioz (Martínez Morcillo, 2013, 110). Halere, aberastasuna lortzeko nahia egongo zela aipatu beharrekoa da, bai hiri eta kanpamenduen sakeoan, bai nekazal zonaldeetan burututako arpilatzetan, besteen artean soldaduak ordaintzeko beharrezko aberastasuna lortzen (García Riaza, 2002, 253).

“(…) *tum ab caede ad diripiendam urbem discursum. triginta milia seruilium capitum dicuntur capta, argenti uis ingens facti signatique, auri tria milia octoginta pondo, signa tabulae prope ut Syracusarum ornamenta aequauerint (...)*”⁵

Nekazal lurraldearen arpilatzeari dagokionez, honakoa ere oso ohikoa zela aipatu behar da. *Oppidum*-en⁶ kontrako eraso eman baino lehen kokatzen zen normalean. Honen helburua etsaien komunitatearen ahalmen ekonomikoa kaltetzea izaten zen: nekazal azpiegiturak suntsitu, uzten eskuraketa, basoen mozketak eta herrixka txikien suntsiketak. Xedea agintari lokalen amore ematea lortzea zen, *deditio* neurria lortzeko ekintza modukoa ere ulertua, eraso eman aurretik burututako ekintza izan ohi zen eta (García Riaza, 2002, 257).

Helburu ekonomikoek ere garrantzia zeukaten, zerealak zein abereak eskuratzea axola izango du gerra testuinguruan, ekintza militarrek burutzeko hornikuntza ere ezinbestekoa baitzen. Hispaniako ekintza militarretan behin baino gehiagotan garatu zen, iturrietan gaintik aipatzen dena, ohikotasuna dela eta (García Riaza, 2002, 261).

2. 3. 2. Hilketak eta sarraskiak

Hiri bat hartzerakoan erromatar armada ankerra zen oso, garairako biolentzia ohikoa izan arren, erromatarrak askoz ere bortitzagoak zirela diote adituek (Pérez Rubio, 2013, 114). Askotan, garaituen gaineko hilketak iturrietan aipatzen dira, hauetan emakume eta gizonen arteko ezberdinketarik egin gabe. Emakumeen eta umeen hilketak aipatzerakoan gertakarien bortizkeria azpimarratu egiten da.

Ilurgia/Iliturgis-en kasuak sarraskiak aztertzeke aukera ematen digu. Eszziponek K.a. 206an zapaldutako hiria izan zen hau. *Iliturgis*-eko biztanleak akatuak izango ziren, sexu edo adinaren arabera bereizketarik egin gabe. Livioaren arabera, emakumeak eta umeen exekuzio hauek defentsa eta gerra egitekotan parte hartu zutelako izan zen (geroagoko krudeltasuna justifikatzeko nahian erabilitako argudioa izanik) (Martínez Morcillo, 2013, 422).

⁵ Liv. 27. 16. 7. Tarento hiriko arpilatzearen adibidea: “(...) A la matanza siguió el saqueo de la ciudad. Dicen que fueron cogidos treinta mil esclavos, una enorme cantidad de plata labrada o acuñada, tres mil ochenta libras de oro, y casi tantas estatuas y cuadros como los que habían adornado Siracusa.”

⁶ Kokaleku zehatz batean ezarritako guneak ziren, geografía eta gizakiaren lan eskuaren laguntzarekin babesa eskaintzen zuten ezarlekuak izanik. Hauek inguruan kokatutako lurraldearen kudeaketa burutzen zuten.

“(…) *Tum uero apparuit ab ira et ab odio urbem oppugnatam esse. nemo capiendi uiuos, nemo patentibus ad direptionem omnibus praedae memor est; trucidant inermes iuxta atque armatos, feminas pariter ac uiros; usque ad infantium caedem ira crudelis peruenit. ignem deinde tectis iniciunt ac diruunt quae incendio absumi nequeunt; adeo uestigia quoque urbis exstinguere ac delere memoriam hostium sedis cordi est.*”⁷

“Καὶ ἡ στρατιὰ δι’ αὐτὸν, οὐδενὸς ἐπικελεύσαντος, ὑπεριδοῦσα τῆς ἀρπαγῆς, ἔκτεινον ὁμαλῶς καὶ παιδιά καὶ γυναῖκας, μέχρι καὶ τὴν πόλιν αὐτοῖς ἐπικατέσκαψαν.”⁸

Hilketak eta sarraskiak orokorrean gutxi izan ohi ziren, betiere egoeraren araberakoak. Presoak hartzeko interesa handiagoa zegoen, botinaren zatia zirelako eta geroago esklabo moduan saldu ahal izango zituztelako. Gutxitan hartutako neurri honek, zigor maila desberdinak zeudela adierazten digu, Morcillok bere lanetan esaten duen moduan. Halere, etsaien desagerpena baino, hauen salmenta esklabo moduan nahiago izango da (Martínez Morcillo, 2013, 418).

Sakailak ematekotan hauek erresistentziarekin akabatzeko helburua izango zuten, altxamenduak saihesteko neurriak izanik. García Riazak azaltzen duen moduan, Polibioren arabera, hauek hiritar guztien kontrako neurria izango zen, Liviok, berriz, soilik soldaduen edo gizonen kontrako neurria izango zela adieraziz⁹. Normalean sakeoaren ondoren bizirik zeuden pertsonen bizitza errespetatzen zen, halere, sarraskiak bideratu ziren adibideak ere badaude iturrien artean.

Sarraskiak, aipatu bezala, etsaien erantzukizuna altua zelako gertatzen ziren. *Imperatores*-ek hauek burutuko zituzten sexu, adina, leinua edo erantzukizun politikoaren arabera orokorrean, esan bezala, egoera edo gertakariak oso larriak zirenean (Martínez Morcillo, 2013, 430). *Ius belli*-ren araberakoa zen hau, beraz, bake negoziatorik ez egotekotan gerra eman eta hilketak burutzen ziren. *Ius gentium*-en

⁷ Liv. 28. 20. 6-8. *Iliturgis* hiriko sarraskia: “(...) Entonces sí que quedó patente que el ataque a la ciudad era debido a la rabia y el odio. Nadie pensó en coger prisioneros, nadie pensó en el botín a pesar de que todo se ofrecía al saqueo; degollaron indiscriminadamente a los que tenían armas y a los que estaban desarmados, a las mujeres y a los hombres; en su airada crueldad llegaron a dar muerte a los niños de corta edad. Después prendieron fuego a las casas y arrasaron lo que no podía ser consumido por las llamas, tales ansias tenían de borrar incluso las huellas de la ciudad y hacer desaparecer el recuerdo del lugar donde residían sus enemigos.”

⁸ App. *Iber.* 32. *Ilurgia* hiriko sarraskia (*Iliturgis*): “(...) y su ejército, por la misma razón, olvidándose del saqueo y sin que nadie se lo ordenara, mató cruelmente incluso a los niños y a las mujeres, hasta dejar reducida a la ciudad a sus cimientos (...)”

⁹ García Rianza, E., 2002, 240.

barnean erregulatuta zegoen, behin eraso eman ondoren. Orokorrean, neurri hau berdin aplikatu zen bai Mendebaldean bai Ekialdean, Mendebaldean iraunkortasuna altuagoa izan zen arren (García Riaza, 2002, 245).

2. 3. 3. Hirien suntsiketak

Behin eraso armatuak bideratzerakoan hiri horren hondamena gertatzen zen. Biztanleen gaineko biolentziarekin batera hauen ondasun eta eraikinen gaineko erasoak ere ematen zen, indarra adierazteko modua izanik.

Gunearen ausiabantza gizartearen eta kulturaren desagerpena ekartzen zuen. Helburua behin ere hauek amore ematea eta Erromaren nagusitasuna inposatzea izanik, terrorearen erabilpena azpimarratuz.

Harresien suntsiketak garrantzi handia zeukan, hauen babes moduarekin amaitzeko ekintza zen eta. Honen bidez, behin garaipena lortzerakoan etorkizuneko altxamenduak ekiditeko ahalmena egongo zen, *res publica*-ren menpe egotean defentsa beharrezkoa ez izaten, Erromak berak babes bermea eskaintzen zuen eta.

Honekin batera ere garrantzi gehien zeukaten eraikinen eta azpiegituren eraispena burutzen zen. Hauek botere adierazleak izango zirelakoan hauen desagerpenak porrotaren adierazlea izango zen. Azpiegiturenak, ordea, hiri hauen ahalmen ekonomiko zein interesak suntsitzeko nahia egongo da, ahalik eta kalte gehien eragin nahian.

Sakeoaren ondoren ohikoa zen suteak ematea, bai eraso eragindako suteak bai probokatuak izandakoak. Suaren suntsipen ahalmen maila altua gunearen ezabapena burutzeko teknika eraginkorragoa zelako. Baina iturrietan gunearen suntsiketa osoa eman zela adierazten dutenean egia puzteko moduan erabilitako argudioak direla uste dute adituek, berez eraikin esanguratsuenen ezabaketarekin zein harresi eta azpiegituren desagerpenarekin nahikoa izango zelako.

Bestetik, hirien ausiabantzak bideratzeko erabakia *imperator*-rak zeukan, *oppugnatio*-ren osteko neurria zen eta. Kartago eta Korintoren kasuetan *senatus consultum*-ren ondoriozko erabakia izan zen, komunitatearen suntsiketaren nahia zegoelarik. *Numantia*-ren kasuan, berriz, ez zen *oppugnatio*-ren gerokoa izan, eta gunearen desagerpena ez zen *senatus consultum* baten ondorengo neurria izan. Dena den, Eszipion Emilianoren boterea eta Senatuaren laguntzaren ondoriozkoa izango zen

(García Riaza, 2011, 58). Gloria militarra eskuratzeko bidea bezala ere ulertu behar den fenomeno da, jeneralaren ospea garaienetan adierazten baitzen, suntsiketa oso bat honen arrakasta eta boterea adierazten zuelako *Numantia*-ren kasuarekin bezala, iturriek goraipamen hau burutuz (García Riaza, 2002, 266).

2. 3. 4. Emakumeen gaineko biolentzia

Emakumearen kasua aztertu beharra dago, gerraren ondorioak ikertzerakoan beraien izaera eta gizarte funtzioa zela eta, umeekin batera ahulenak zirelako, hauen gaineko biolentzia gerra testuinguruan nagusia izaten. Emakume ederrenak ez zituzten akatzen, hauek bortxatzen zituzten eta, baina sufrimenduak ez zuen luzez iraungo askotan bortxa hauek heriotza ere ekarriko zuten eta. Behin esklaboak izanik prostitutak edo ohelagunak izango ziren (Antela, 2008, 319), heriotza baino etorkizun latzago bat izanik. Komunitatearen amaiera ere suposatzen zuen, gizartea iraunarazteko gaitasuna desagertzen zelako, hauek gizarte partaideak erditu ez ezik, oroimena eta tradizioa ere bermatzen zuten eta (Pérez Rubio, 2013, 119). Borrokatzea hauen funtzioen artean ez zegoen, dena den, ezohiko egoeretan armak hartuko zituzten desesperazioa eta gizartearen borroka baloreen ondorioz, beste aukerarik ez zegoenean aurrera eramandako neurria izanik (Pérez Rubio, *op. cit.*, 104).

Biolentzia fisikoa ez ezik bortxaketak ere sufritu behar izango zituzten, adituen arabera hauek legionarioen artean ohikoak izaten, setioen ondoriozko ekintza bezala kontsideratzen baitzituzten (Ñaco del Hoyo, 2009, 45; Antela Bernárdez, 2008, 315). Erromatarrek bazekiten porrotekin emakumeen bortxaketak ematen zirela, nahiko normala izaten beraien artean. Honen bidez etsaien gaineko zigorra ezartzen zen, bortxaketa masiboak eta hirien suntsiketak gizarte kontrol mekanismo bezala ulertzen da Borja Antelaren esanetan, honen bidez erromatar tropek izua zabaltzen zuten, haien boterea errepresioaren bidez hedatuz (2008, 315).

Iturri latindarrek hirien sakeorako *direptio* kontzeptua erabiltzen zuten, Borja Antelaren aburuz, hitz honek bai biolentzia sexuala bai hiritarren hilketa esanahia zeukan. Honek, Ziolkowski-ren iritziz ere, sakeoa bideratzeko askatasun osoa esan nahi zuen, *direptio* burutzerakoan emakumeen bortxaketak gauzatuz (1993, 71).

Antzinateko testuetan oso gutxitan aipatzen da, adituen ustetan agian balioa galtzen zutelako erromatarren eskuetan jaustean esklabo moduan, edota iturrietan ezer

ez aipatzea baieztapen era bezala ere ulertu ahal dela diote, gutxitan adierazita ohikotasuna dela eta (Ñaco del Hoyo, 2009, 45).

Gizonek batailan beraien bizitza eman eta emakumeek gizonen porrota beraien gorputzetan pairatu behar zuten. Bai gerra galtzearen ondorengoko neurri moduan, bai etsaien errepresalia eran (Ñaco del Hoyo, *op. cit.*, 45), geroago esklabo moduan saltzen zituztelarik.

Emakumeek haien gizonen garaipenean itxaropena izan behar zuten, hori dela eta, soldaduen etika gerlariaren oinordekoak izanik, gerran jardutera bultzatzen zituzten, hauen babesaren beharra zuten eta (Pérez Rubio, 2013, 105). Garaituak, bortxatuak eta geroago salduak izango ziren (Ñaco del Hoyo, 2009, 46), orokorrean lurralde guztietan garatutako egoera eta errealitate bera izan zena.

2. 3. 5. *Supplicationes*

Nahiz eta emakumeek gizartearen eta beraien salbaziorako erresistentzia funtsezkoa ikusi, beste momentuetan amore emateko nahia adieraziko dute. *Supplicationes*-en bidez garaileen errukitasuna bultzatuko dute. Honakoa porrota argia denean gertatuko da, bestelako irtenbide bat ez dagoenean emakumeak belaunikatu eta apalduko dira. Zesarrek Galiaren kanpainetan honako eszenak azaltzen ditu, non emakumeek eta umeek harresien goiko aldeetatik eskuak erakusten zituzten bakea eskatuz erromatarrei¹⁰ (Pérez Rubio, 2013, 112).

Supplicatio-a burutzeko landare zatiak ere erabiltzen zituzten, hauen bidez (adarrak, hostoak, loreak etab.) nahi ona, mendekotasuna eta suplika adieraztearren. Orokorrean, Mediterraneo osoan zabalduta zegoen sinbologia zen, indigenek ere beraien artean erabiltzen baitzuten (García García Riaza, 2002, 83).

2. 3. 6. Buruaz beste egiteak

Populaketa nukleoen erasoekin eta ezarritako neurri zapaltzaileekin batera ere buru-hilketak emango dira. Hauek, talde indigenak aurrera eramandako neurriak izango dira, Erromaren erantzukizuna ez izaten. Askotan erasotako hiriaren populazioak bere buruaz beste egitea nahiago izango zuelako erromatarrek ezarritako neurri bortitzak baino (Pérez Rubio, 2013, 113).

¹⁰ Caes. *BG.* II. 13.

Gerlarien etikarekin erlazionatuta dagoen fenomeno da hau, ohorea galdu baino heriotza nahiago izaten, portaera heroikoa izan ohi zena (Pérez Rubio, 2013, 113). Gizonek ez ezik, emakumeek ere suizidioa gauzatzeko erabakia hartzen zuten, Apianok Saguntoren kasuan azaltzen duen moduan, behin garaituak emakumeek harresietatik bota eta umeak hilko zituzten:

“Αἰ δὲ γυναῖκες ἀπὸ τοῦ τείχους ὀρῶσαι τὸ τέλος τῶν ἀνδρῶν, αἱ μὲν ἐρρίπτουν ἑαυτὰς κατὰ τῶν τεγῶν, αἱ δ' ἀνήρτων, αἱ δὲ καὶ τὰ τέκνα προκατέσφαζον.”¹¹

Gerraren errepresioa larriagoa izango zelakoan, sufrimendu hori laster amaitzeko helburuarekin honelako ekintzak burutzen zituzten (Pérez Rubio, 2013, 114). Ohorea mantentzeko neurria bezala ere ulertzen zena:

“(...) *illos se per deos superos inferosque orare ut memores libertatis, quae illo die aut morte honesta aut seruitute infami finienda esset, nihil relinquerent in quod saeuire iratus hostis posset; ferrum ignemque in manibus esse; amicae ac fideles potius ea quae peritura forent absumerent manus quam insultarent superbo ludibrio hostes.* (...)”¹²

2. 3. 7. Esklabotzeak

Gizon helduek gerran bizitza ematen zuten, emakumeak eta umeak, berriz, esklabo bihurtzen ziren. Esklabotzaren mehatxua berez, disuasio arma zen, erresistentzia aurkeztutako guneen gainean ezarritako neurria izaten (García Rianza, 2002, 234). Dena den, diru sarrerak eskaintzen zituen neurria ere bazen, botinaren zati garrantzitsu bat gatibuen salmentatik zetorren eta. Honakoa indigenek bazekiten, populazio hauen erresistentzia azaltzen duena, emakume zein haurrena.

Esklaboak bilakatzearen interesak populaketaren hilketaren kontra jotzen du. Beraz, populazio indigenaren ezabaketa ez zen hain bortitza izango. Lukuloren kasua *Cauca* hiriarekin hiperbole baten erabilera izango zela dio García Riazak, *fides*-engan zeukan errespetu gutxi adierazi nahi izango duena¹³.

¹¹ App. Iber. 12. *Sagunto* hiria: “(...) Las mujeres, al ver desde las murallas el fin de sus hombres, se arrojaron unas desde los tejados, otras se ahorcaron y otras, incluso, degollaron a sus propios hijos.”

¹² Liv. 28. 22. 10. *Astapa* hiria: “(...) que las manos amigas y fieles destruyesen lo que estaba destinado a perecer, antes de que los enemigos lo escarneciesen entre burlas insolentes (...)”

¹³ Bravo, G., González Salinero, R., 2007, 22.

Etsaiak esklabo bihurtzearen helburuen artean etekin ekonomikoak eskuratzea zegoen, *mangones* edo *mercatores venalicii*-ei salduz. Agian presoen salmenta lekualdaketen eta hauen garraioen arazoei erantzuna emateko teknika izan zen, hala ere, gehienetan dirua eskuratzeko metodoa izango zen *Numantia*-ren garaipenarekin K.a. 133an gertatu zen bezala Eszipion Emilianoren eskutik (Martínez Morcillo, 2013, 118).

Salmentetarako ez ezik, Hernández Prietoren arabera, gerraren beharrezko lanak burutzeko baliagarriak ere izango ziren. Erromatar armadaren pertsonal logistikoa izatera igarotzen¹⁴. Beste batzuk itsas armadan arraunlari moduan ere sartzen zituzten.

2. 3. 8. Zigorrak: eskuen anputazioak

Eskuineko eskuaren anputazioak balio sinbolikoa izango du hispaniar mundu indigenan, (García Rianza, 2007, 28) armen erabilpenarekin lotuta zegoen eta. Erromatarren estrategien artean kokatutako neurria zen hau, kontrola burutzeko, gerora soldadu hauen borrokatzeko ahalmena ezabatuz. Honakoa gatazka egoeretan altxamenduak ekiditeko bidea zen.

Eskuineko eskuaren anputazioa soldaduen umilazioa zekarren. Balio militarren hondamena eragiten zuen neurria zen, gudariaren estatusa galtzeko arriskua ere egoten. Gainera, akordioen sinbologiarekin ere lotua, honen galera ere suposatuta ahal zuen (García Rianza, 2007, 29). Beraz, nahiko neurri zapaltzailea zen, gizonen borrokatzeko ahalmena eta ondorioz, Erromaren aurreko altxamenduak bideratzeko ezintasuna ekarriz.

2. 3. 9. Lekualdaketak eta deportazioak

Azkenik, *oppugnatio*-ren ondorioz ezarritako errepresaliek amaitzeko bizitokiaren suntsiketa partzialak edo osoak zeuden. Etorkizunera begira ezarritako neurri politiko baten ezarkuntza adierazten duena, indigenen lurralde egituraren suntsiketa eta hauen birkokapen geografikoa urrun zeuden lekuetan aurrera eramaten zen (García Rianza, 2007, 29).

Lekualdaketa eta deportazioak ohikoak izan ziren erromatarren bake politiken artean. Mendietako populazioa lautadara eramateko joera zegoen (Martínez Morcillo, 2013, 119). Hispaniaren kasuan bizitzeko modu baten aldaketa suposatuko du, *castro*-

¹⁴ 2014, 387.

en¹⁵ eredia desagertuko da eta. *Oppida* gune geografiko estrategikoa zen, borrokatze eta babes metodoa ere izanik, hori dela eta, hauen ezabaketa beharrezkoa izango zen, populaketa eremu lau batean ezarri behar izaten¹⁶. Helburua zigortzea eta etorkizunean eman ahal diren altxamenduak ekiditea zen, Erromaren aldeko lurralde kontrola suposatuz.

Tokialdaketa neurriak larritasun nahiko mugatua zeukan Morcilloren arabera komunitateen gaitasun politikoen galera suposatzen ez zuelako¹⁷. Edozein kasutan ere, lurralde birkokapena gauzatu behar zen, altxamenduak saihesteko nahian. Bertakoentzat mingarria izango zen, lekualdaketa hauek porrota ez ezik, herri hauen kultur galera ere suposatzen zuelako.

Deportazioak, aldiz, desberdinak ziren taldeen desagitea eta gizarte ezaugarrien galera ekarriko baitzuten. Herri hauek beste gunetan integratzen behartuz, herri berri bat eratu ahal izango dute. Betiere komunitate berria Erromaren menpeko gune eta hiria bilakatuz (García Riaza, 2011, 62).

Esan daiteke sortutako deportazioak zigor latzak zirela, batzuren ustez genozidio modukoak, etsaiaren suntsiketa bilatzen zen eta:

“Πόλιν δ' ἑτέραν τῆς Κολένδης πλησίον ὄκουν μιγάδες Κελτιβήρων, οὗς Μάρκος Μάριος συμμαχήσαντας αὐτῷ κατὰ Λυσιτανῶν, τῆς βουλῆς ἐπιτρεπούσης, ὠκίκει πρὸ πέντε ἐνιαυτῶν. Ἐλήστευον δ' ἐξ ἀπορίας οὗτοι· καὶ κρίνας αὐτοὺς ὁ Δεΐδιος ἀνελεῖν, συνθεμένων αὐτῷ τῶν δέκα πρέσβων ἔτι παρόντων, ἔφη τοῖς ἐπιφανέσιν αὐτῶν ἐθέλειν τὴν Κολενδέων χώραν αὐτοῖς προσορίσαι πενομένοις.”¹⁸

“locus ubi habitarent trans Tiberim qui non contingeret Tiberim daretur: qui nec Capuae nec in urbe Campana quae a populo Romano defecisset per bellum fuissent, eos cis Lirim amnem Romam uersus, qui ad Romanos transissent priusquam Capuam

¹⁵ Eremu estrategikotan kokatutako aurre-erromatar herrien asentamendu edo ezarleku gotortuak ziren, lehen mailako iturrietan Erroma aurreko antolamendu hauen errealitatea islatzen delarik (Eranskina 4. 1. 2. irudia).

¹⁶ App. *Iber.* 99.

¹⁷ 2012, 142.

¹⁸ App. *Iber.* 100. Kolendaren adibidea: “(...) existía otra ciudad próxima a Colenda, habitada por tribus mezcladas de los celtíberos, a quienes Marco Mario había asentado allí hacía cinco años con la aprobación del senado, por haber combatido como aliados suyos contra los lusitanos. Pero éstos a causa de su pobreza se dedicaron al bandidaje. Didio, tras tomar la decisión de destruirlos (...) rodeándoles con el ejército, les dio muerte a todos (...)”

Hannibal ueniret, cis Uolturnum emouendos censuerunt, ne quis eorum propius mare quindecim milibus passuum agrum aedificiumue haberet.”¹⁹

3. Hausnarketa

Porrota burura ekartzeko moduan gizarte hauek ondorio fisikoak ez ezik, neurri psikologikoak ere jasango zituzten (lekualdaketek gizartearen kohesioa eta lurralde suntsiketa ekartzen baitzuen). Deportazio kasuetan neurriak bortitzagoak izango ziren, talde hauen desagertzea osoa suposatuz.

Konkista burutzeko teknikak zein estrategiak ziren hauek, nukleo hauen menderakuntza edo desagertzea burutuz erromatarren konkista eta lurralde berriaren kontrol osoa ematen zelako. Pairatu behar izandako gauzen artean hiriaren suntsiketa, kanporaketa zein gizartearen desagertzea zeuden. Soldaduak gerran aritzen zirenez, hauen gaineko biolentzia ematen zen, baina askotan, *oppugnatio* kasuetan, emakumeek ere ondorio bortitzak jasaten zituzten: bortxak, jipoitzeak, familiarren hilketak eta esklaboak bilakatzea. Gizonen kasuan bezala, emakumeen gainean heriotza neurriaren ezarpena ere gauzatzen zen. Aurrekoa kontuan hartuz, ez da harritzekoa askotan etorkizunaren beldur semeengan gerrazaletasuna indartzeko heziketa bideratzea, honen bidez babesa bermatuko zen eta. Beste kasuetan, irtenbiderik ez egotekotan, emakume hauek buru hilketak ere bideratuko zituzten, seme-alabei heriotza eragiten, zapalkuntza eta esklabotzaren beldur baitziren.

Hortaz, gizarte hauek bazekiten zelako etorkizuna izango zuten, erromatarren sistema konstituzionalaren zirrituak ezagutzen zituzten eta (García Riaza, 2012, 170). Gerrara ohituak egongo ziren, askok ejertzitoei aurre egiten, beste batzuk, beldurra edo errepresaliak ezagututa, amore eman eta *deditio* formula eskatuko zuten. Dena den, normalean hilketak oso masiboak ez zirela izango uste da, aditu gehienek esklaboak eskuratzeko nahia handia izango zela adierazi dute, gerra kostuak ordaintzeko helburuarekin gerra presoak esklabo bihurtuko zituzten eta.

¹⁹ Liv. 26. 34. 8. “(...) se les asignaría un lugar donde residir, al otro lado del Tíber pero no colindante con el río; respecto a los que no habían estado ni en Capua ni en ninguna ciudad campana que se hubiese levantado en armas contra el pueblo romano, se acordó que fuesen confinados a este lado del río Liris (...)”

Gerra osteko ondorioen artean eskema berri eta handi baten menpeko zati bat izatera pasako direla kontuan hartu behar da. Komunitatearen haustura eta askatasunaren galera pairatzearekin batera, egitura berri eta zabal baten parte izatera igaroko baitira. Nolanahi ere, konkista urteetan zehar luzatu zenez, urte zein mendeen araberrako aldeak egongo ziren. Hispaniaren kasuan, Bigarren Gerra Punikoaren testuinguruan indigenen gizarte egituren mantenua bideratuko da, etsaiaren aurrean estrategia moduan erabilia, oraindik lurralde hauen kontrola zein mantenua burutzeko sistema adostuta ez zegoelako (Hernández Prieto, 2011, 114). Gerra testuinguruan bertan kokatutako komunitateen egiturak kontserbatzea adostu zuten, funtzio militarrek mantenduz. Geroago, behin Bigarren Gerra Punikoa amaituta, kontrola ezartzeko nahian erromatarrek inposatutako egiturak ezarriko ziren, benetako konkistari hasiera ematen.

Negoziaketak ohikoak izango ziren, bai gerra testuinguruan egitura hauen laguntza jasotzeko nahiaren menpean, bai geroago Erromak hauetatik onura ateratzeko intentzioarekin. Hortaz, Erromaren kontrako jarrera irmoa ez zen nagusia izango, nukleo hauen eta Erromaren arteko negoziaketak askotan bideratuko zirelako, indigenen garapen eta egituren konplexutasuna islatuz (García Riaza, 2011, 102).

Gerrak xede, ikusmolde eta nahia desberdinak dituzten aldeek aurrez aurre jartzen dituen gertakizuna da. Historian zehar behin eta berriz errepikatutako jazoera da, honen ondoriozko neurriak eta hauekin inposatutako sufrimendua ohikoa izaten. Gerra nahiz eta egoera latza izan, munduko gizarte egiturak direla eta, beharrezkoa izaten da. Etengabe munduko zenbait eremuetan potentzien edo herrialde desberdinen arteko talkak ematen dira, interesak nahasten eta tupust egiten dutelako. Egia da gerra saihesteko eta mundu hobe bat eraikitzeke helburuen ondorioz zenbait erakunde sortu direla, gerra gabeko mundu bat sortzea posible dela adierazten dutenak. Halere, nahi orokorra eta etorkizun zoriontsua garatzeko nahia guztiona izan arren, indarrean dagoen mundu eskema dela eta, oraindik gerraren beharra dugula uste dut (babesa bermatzeko, aberastasuna eta iturriak eskuratzeko).

Potentziek bigarren mailako herrien gaineko eragina eta kontrola burutzen dute, gerra urrun mantenduz. Nahiz eta duela gutxi Europak bi Mundu Gerra pairatu izan, Mendebaldeak gerra egoerak ekarritako baldintzak eta ondorioak ahaztu ditu. Komunikabideetan Ekialdeko gerren irudiak edo berriak jasotzean basakeri horiek soilik kokatutako gizarte eta eremuetan aurrera eramaten direla pentsatzen da, Europan halako

jazoerak eman ahal direla pentsatzean izua zabalduz. Hala eta guztiz ere, Europan mendeetan zehar behin eta berriz errepikatu izan diren agerraldiak dira, gerra egoerak ekarritako portaerak eta gertaerak direlako.

Aurrekoarekin adierazi nahi dudana, gerra egoeran gertakari edo jazoera ezohikoak ematen direla da. Egoera normal batean aurrera eramandako jarrera edo neurriak ez ziren izango, beraz, gerraren krudelkeria eta makurkeriaren barnean kokatzen diren jarrerak dira. Antzinatean ere hauek emango ziren, gerrak ekartzen dituen ondorioak dira eta, oraindik gerra egoeretan antzeko baldintzak pairatu behar izaten. Egun, esan bezala, gerra Europatik urrun ematen da, beraz, bertan emandako biolentzia eta zapaltze mailak, eragindako sufrimendua, hondamena eta anabasa ez ditugu ezagutzen. Antzinatean hauek, lurralde azpigaratuetan gaur egun pairatzen dituzten moduan, gerrak ekarritako baldintzak izango ziren, gatazkaren ondorioak hain zuzen.


Amaitzeko, konkista jasan zuten nukleo hauen populazio zibilaren sufrimendua handia izan zela azaldu behar da. Sufrimendu hau iturrien azterketatik suma dezakegu, lanean zehar aipatu bezala, portaera desberdinen ondorioz adierazten zelako: *supplicatio* eta buruaz beste egiten zutenean batez ere. Armada erromatarra oso indartsu eta suntsitzaile izan zela badakigu. Halatan, Erromaren menpe porrota jasan zuten gizarte taldeen sufrimendua handia izango zen, helburua beraien lurraldeen kontrola zein etsaiaren desagerpena baitzen. Indigenek, gerraren beldur, *supplicatio* erritua burutuko zuten, barkamena eta bakea eskatzeko deia izanik. Egoera larriagoetan, irtenbiderik ez egotekotan suizidioak bideratuz.

Sufrimendua adierazteko modu ezberdinak zituztela badakigu, halere, zailtasunak direla eta, gutxi aztertu den gaia da. Alabaina, iturrien azterketa zehatzetatik informazioa eta beraz, ikerketa bideratzeko posibilitatea egon ahal da. Kontran, sufrimendua gizarte horien adierazpen ez idatzia izango zen, arkeologiak informazioa ere ez ematen. Hala eta guztiz ere, etorkizunean datu zein iturri gehiagorekin landu daitekeen gaia da, betiere historialariaren subjektibotasuna eta egungo gizartearen pentsamoldeen kutsadura handia izan ahal dela kontuan hartuz.


4. Eranskinak

4. 1. Irudiak

1. Irudia: *Andagoste* K.a. 40 – K.a. 30 (*Cuartango*, *Araba*). *Andagosteko* asentamendu militarra. Gatazka gune baten adibidea: gris koloredun eremuak bataila frontea adierazten du. Bertan oinetakoen tatxetak, habailak eta arma arinak aurkitu dira, indigenen setioaren lekukoak direnak (Morillo, A., Cadiou, F., Hourcade, D., 2003, 61).



2. Irudia: Beturiako *oppida* eta *castro*-ak. Beturia inguruko *oppida* eta *castro*-en adibideak sekuentzia kronologikoarekin batera (Morillo, A., Cadiou, F., Hourcade, D., 2003, 225).



3. Irudia: *Almoína (Valentia)*. Sertorio garaiko suntsiketa maila estratigrafikoa. *Pilum* baten bidez zauritutako soldadua (Morillo, A., Cadiou, F., Hourcade, D., 2003, 384).



4. 2. Iturri literarioak

Apiano:

App. Iber. 12; 32; 99; 100

Tito Livio:

Liv. 26. 34. 8; 27. 16.7; 28. 20. 6-8; 28. 22. 10

Julio Zesar:

Caes. BG. 11.13; 31.4; 32. 1-2

4. 3. Bibliografia

ALVAREZ PÉREZ-SOSTOA, D., 2009, “El confinamiento de los prisioneros de guerra y rehenes en la Roma republicana”, *Veleia*, 26, 153-171.

ANTELA BERNÁRDEZ, B., 2008, “Vencidas, Violadas, Vendidas: Mujeres Griegas y Violencia Sexual en Asedios Romanos”, *Klio: Beitrage zur alten geschichte*, 90, 2, 307-322.

BRAVO, G., GONZÁLEZ SALINERO, R., (ed.), 2007, *Formas y usos de la violencia en el mundo romano*, Madrid: Signifer Libros.

GARCÍA RIAZA, E., 2002, *Celtíberos y lusitanos frente a Roma: diplomacia y derecho de guerra*, Vitoria-Gasteiz: Anejos de Veleia, Series Minor 18, Euskal Herriko Unibertsitatea.

–, (ed.) 2011, *De fronteras a provincias, interacción e integración en Occidente (ss. III-I. a.C.)*, Palma (Illes Balears): Edicions UIB, Universitat de les Illes Balears.

–, 2012, “Sobre los mecanismos de integración de los vencidos en el Occidente romano-republicano. Algunas observaciones”, MARCO SIMÓN, F., PINA POLO, F., REMESAL RODRÍGUEZ, J., (koord.), 2012, *Vae Victis! Perdedores en el mundo antiguo-ean*, Barcelona: Universitat de Barcelona.

HERNÁNDEZ PRIETO, E., 2010, “La “economía de guerra” romana durante la Segunda Guerra Púnica en Hispania”, *El Futuro del Pasado*, 1, 411-423.

–, 2014, “Capturados vivos: hispanos, púnicos, mercenarios y rebeldes en las primeras décadas de la conquista romana de la Península Ibérica (218-201 a. C.)”, BRAVO, G., GONZÁLEZ SALINERO, R., (ed.), *XI Coloquio de la AIER. Conquistadores y conquistados: relaciones de dominio en el mundo romano-ean*, Madrid: Signifer libros, 377-396.

MARTÍNEZ MORCILLO, J.A., 2012, “Acabar con la identidad del enemigo: política romana de reorganización de territorios sometidos en contexto de guerra (s.II a. C.)”, ALDEA CELADA, J.M., ORTEGA MARTÍNEZ, P., PÉREZ MIRANDA, I., DE SOTO GARCÍA, M.R., (ed.), 2012, *Historia, identidad y alteridad, actas del III congreso*

interdisciplinar de jóvenes historiadores-ean, Salamanca: Hergar ediciones Antema, Colección Temas y Perspectivas de la Historia, 2, 137-161.

–, 2012, “Lucio Emilio Paulo y el derecho de guerra”, *Studia historica, Historia antigua*, 30, 271-292.

–, 2013, “El asalto de núcleos de población: bases jurídicas, procedimiento y consecuencias durante la República Romana”, *Espacio, tiempo y forma. Serie II, Historia antigua*, 26, 107-122.

–, 2013, “La pena de muerte como represalia durante la expansión romana (218-167 a. C.)”, BRAVO, G., GONZÁLEZ SALINERO, R., (ed.), *Formas de morir y formas de matar en la Antigüedad romana*-ean, Madrid: Signifer Libros, 415-431.

MORILLO, A., CADIOU, F., HOURCADE, D., (koord.), 2003, *Defensa y territorio en Hispania de los Escipiones a Augusto (espacios urbanos y rurales, municipales y provinciales)*, Leon: Universidad de León secretariado de publicaciones y medios audiovisuales / Casa de Velazquez.

ÑACO DEL HOYO, A., ANTELA BERNÁRDEZ, B., ARRAYÁS MORALES, I., BUSQUETS ARTIGAS, S., 2009, “The impact of the roman intervention in Greece and Asia Minor upon civilians (88-63 B.C)”, ANTELA BERNÁRDEZ, B., ÑACO DEL HOYO, A., (ed.), 2009, *Transforming Historical Landscapes In The Ancient Empires*-ean, Oxford: BAR Int.Ser.1986, 33-51.

ÑACO DEL HOYO, A., ARRAYÁS, I., (ed.), 2006, *War and Territory in the Roman World: Guerra y territorio en el mundo romano*, [British Archaeological Reports], Peterborough: Individual contributors 2006.

ÑACO DEL HOYO, A., 2010-2011, “Roma y el impacto de su ejército en la Hispania republicana: un enfoque total”, *Faventia*, 32-33, 297-305.

PÉREZ RUBIO, A., 2013, “Mujer y Guerra en el Occidente europeo (siglos III a.C-I d.C)”, VIDAL, J., ANTELA, B., 2013, *Mas allá de la batalla, la violencia contra la población en el Mundo Antiguo*-ean, Zaragoza: Libros Pórtico, 97-126.

ZIOLKOWSKI, A., 1993, “*Urbs direpta*, or how the Romans sacked cities”, RICH, J., SHIPLEY, G., 1993, *War and society in the Roman World*-ean, London: Routledge, 69-91.